



Dantza-zubia

2019-2020

Justifikazioa

Adin aproposa

Proiektua 13-14 urteko ikasleei zuzenduta dago. Partaideak aldaketa momentu batean murgilduta daude, etapa honetan trantsizio bat ematen da umetasunetik gaztetasunera. Honetan, norbanako identitatea sortu eta elkarren artean harremantzen hasten dira, lagun taldeak sortuz. Beraz, dantza, sorkuntza eta artea bilakatu daitezke oso tresna baliotsuak haiekin lantzeko.

Tresna berriak

Gorputz adierazpena erabiliko da errealitatean gertatzen diren hainbat arlo lantzeko. Bi munduak (hezkuntza eta dantza) batuta, programazio berriak, ekintza berriak, tresna berriak sortzeko aukera izango dugu. Honela, hezkuntza prozesuaren zentzua borobildu, azkartu eta konplementatzeko asmoz. Saiatuko gara galdetegi bat prestatzen, egitasmoak zer eragina duen neurtzeko.

Zaletasuna piztu

Konpainiak proiektu hau aurrera eraman nahi du gizartea sensibilizatzeko eta dantza garaikidearekiko zaletasuna eraikitzeko. Hainbat urteetan zehar ez da mediazio kanpainen eraginik ikusi publikoaren zaletasunean, eta horregatik proiektu bat aurrera eramateak arlo hau garatu eta aldatu dezake.

Inspirazioa

Gure ekoizpenaren koreografoak, Baionako Martin Harriaguek, inspirazioa hartu zuen Palestinan...(…), eta bere Israelgo dantza konpainia batean izandako eskarmentuan oinarrituko da.


Hainbat urteetan zehar mediazio eta sentsibilizazio kanpainak bultzatu ditugu, baina ez da eragin handiegirik ikusten. Bide berriak irekitzeko beharrean gaude, eta ikastetxeak eta hezkuntza mundua bidelagunak izan nahi ditugu. Mugazgaindiko egitasmoa Iparralde eta hegoaldearen arteko zubia eraiki nahi dugu, eta esperientziak konpartitu eta elkarrekiko hausnarketa egin. Gainera, beste muga baten gaineratik pasa nahi dugu: hezkuntzan bada lekua artea eta dantzarako, eta demostratu nahi dugu gure proiektuarekin.

Helburuak

1. Bi mundu desberdinen arteko loturak egitea: dantzaren poterea hezkuntza prozesuarekin harremantzea, bakoitzak bere lana eginez, eskolak, hezkuntza, eta dantza konpainiak erreminta koreografikoak luzatuko dizkio ikaslegoari sorkuntza eta ekoizpen artistikoa garatzeko.
2. Mugaz gaindiko harremanak sendotu, beste ikastolaren inplikazioaren bidez.
3. Gazteen irekitasuna munduari begira azkartu: adin bereko palestindar gazteen bizi baldintzak ezagutuz.
4. Nerabe nortasuna eraiki gazte bakoitzak bere gorputzarekin duen harremana galdekatuz, galdekatze hori dantzaren praktikak ekartzen duelarik.
5. Dantza eskoletara hurbiltzea.
6. Parte hartzaileen arteko giro osasuntsu bat sustatzea.
7. Proiektuetan parte hartzaileei luzatuko zaien galdetegia funtsezkoa izango da, ondoren, analisi bat egin eta iraganean eta orainean proiektuak izan duen inpaktua ikusteko. Aztertu diren arloetako batzuk, ikusle moduan eta dantza praktikatzeko orduan duten zaletasun maila, eta aurretik zuten eta orainean duten jakintza maila neurtzea,



Marko instituzionala



Deskribapena

Mediazio proiektu honetan prozesu pedagogiko bat irekiko da Bernart Etxepare, Dantzaz eta zehaztu gabeko beste ikastetxe baten artean. Hezkuntza eta artea batuko dira proiektuan, bi mundu eta hiru erakundeen lana uztartuz. Dantzaz, sorkuntza koreografiko eta ekoizpenaz arduratuko da eta ikastetxeak, gaiarekin zer ikusia duten hainbat arlo jorratzeaz. Elkarlanean arituko dira proiektua ikaslegoaren beharretara hurbildu ahal izateko. Astebetez egonaldi bat egingo du eskola bakoitzean eta bertan sorkuntza prozesu baten murgilduko ditu partaideak, prozesuaren amaieran ikastetxeak dauden bi herrietan bi ikastolek parte hartuko duten emanaldiak antolatuz.



Honela, ikasleei euren adineko beste gazte batzuk ezagutzeko aukera emango zaie, elkarren arteko bizipenak eta ezagutzak elkarbanatuz. Herri Urrats, Ibilaldi edota Kilometroan ere emanaldi bat antolatzeko atea irikita geratzen da. Sorkuntzak eta ekoizpenak gaur egun Palestina eta Israelen artean bizi den gizarte gatazka hartuko du inspiraziotzat, eta era berean, Marthan Harriguek Dantzaz Konpainiarako sortuko duen obra oinarritzat hartuko da. Honetan, aurretik aipatutako gatazka ageri da, frontballa eta beraten dagoen harresia inspiraziotzat hartuz. Musika ere bereziki obrarako sortua izango da. Dantzaz Konpainiak aurretik egindako beste mediazio proiektu batzuk oinarritzat hartuko dira proiektu hau ikastetxeekin batera garatzeko. Ikastetxeek nahi izan ez gero, posible izango zen koreografoa konpainiarekin lanean arituko den saio bat ikustera etortzea.

Datak

Zer eginak

- Bilerak Donostian
- Bilerak Baionan
- Sorkuntza prozesua
- Emanaldiak
- Gaien lanketa
- Hasi baino lehenagoko ebaluazio galdetegiak banandu
- Esperientzia bizi osteko galdetegiak banandu
- Datuak aztertu

Iraila

Urria

Azaroa

Abendua

Denbora


Urtarrila

Otsaila


Martxoa

Apirila

Maiatza



Metodologia eta ebaluazioa



E
B
A
L
U
A
Z
I
O
A

